



XXXXX-(E)K ETXE-HONDAKINEN ETA ASIMILAGARRIEN JATORRIA KONTROLATZEKO PROZEDURA BATEAN ESKATZEN DIREN DATUEI BURUZ EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2010eko maiatzaren 13an Xxxxx-(e)ko Ingurumen teknikariaren idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Idazki horren bidez, goian aipatzen den gaiari buruzko txostena eskatzen zen.

BIGARRENA: Kontsulta-idazkiak honakoa zioen:

“Xxxxx-(e)k du Xxxxx-(e)ko kide diren udalen hiri-hondakinak kudeatzeko ardura; hori dela eta, garbigune bat (Garbigune) dauka jarrita Xxxxx(e)n.

Garbigunea etxe-hondakinak eta asimilagarriak biltegitratzeko da eta irabazi asmorik ez duenez, ez da kobratzen instalazioak erabiltzeagatik.

Hala ere, zenbaitetan gertatzen da hondakinak profesionalek ekartzen dituztela, adibidez, dekoratzaileen sektorekoek, etxeetan ekipamenduak jarri eta/edo altzairuak kentzen dituztenean, bezeroei hondakinak garbigunean uzten laguntzen dietelako. Etxetik gauzak kentzeko zerbitzu bat da; horretarako ibilgailu aproposak erabiltzen dituzte eta gehienetan ibilgailu horiek ez dira egoten erabiltzaileen esku.

Kontuan izanda instalazioa doakoa dela, eta bertan etxe-hondakinak eta asimilagarriak sar daitezkeela bakarrik, pentsatu da, hondakin jatorria hobeto kontrolatzea, eta, horretarako, instalazioa erabili ohi duten profesionalei eskatzea esateko ea zein den instalazioetara doazen bakoitzean han uzten dituzten gauzen jatorria; azken finean, ziurtatu nahi dena da bertan sortutako hondakin kopurua funtzionamendu-erregelamenduan jasotako onargarritasun-mugen barruan dagoela eta hondakinak kuadrillako kide diren udaletakoak direla.

Prozedura honek Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren oniritzia behar duela uste dugunez, azter dezazuen bidaltzen dizuegu.

Horregatik, eskatzen dizuegu lehenbailehen erantzuteko hondakin jatorria kontrolatzeko prozedura ezartzearen gaineko eskaera honi, prozedura ez dadin izan pribatutasunaren eta datu-babesaren aurkakoa.



HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Lehendabizi aipatu behar da kontsulta egilea kezkatuta dagoela eta nahi duela erantzutea *“...hondakinen jatorria kontrolatzeko prozedura ezartzearen gaineko eskaera honi, prozedura ez dadin izan pribatutasunaren eta datu-babesaren aurkakoa”*. Bulegoak uste du hondakinen jatorriari buruzko datuen artean badaudela pertsona fisikoei buruzko datuak, pertsona horienak direlako hondakinak eta ez instalazioetara eramaten dituzten profesionalenak.

Hori argi utzi nahi dugu, bildu nahi diren datuak ez direlako kontsulta-idazkian aipatzen diren *“instalazioa erabili ohi duten profesionaler”* buruzkoak, horiei buruzkoak balira, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Erregelamenduaren 2.3 artikulua xedatutakoa bete beharko litzatekeelako. Hona artikulua dioena:

“Era berean, banan banako enpresariei buruzko datuak, horiei egiten zaien erreferentzia merkatari, industria arloko enpresari edo itsas merkatari izateagatik bada, pertsonalak babesteko erregelamendu honen ezarpen-eremutik kanpo geratuko dira.”

Beraz, hori hala balitz, ezingo litzateke datu-babesaren araudia ezarri, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren 42/2008 Txostenak adierazitakoaren arabera.

Bestalde, jaso nahi diren datuak hondakinak sortzen dituzten pertsona fisikoei buruzkoa badira, eta datu horiek hondakinak instalazioetan uzten dituzten profesionalengandik jaso nahi badira, komeni da hasieratik kalifikatzea zer den datu-babesaren ikuspuntutik begiratuta, *“instalazioa erabili ohi duten profesionaler”* egiteko eskatzen zaiena hondakinen jatorriari buruzko kontrol prozeduran.

Eta argi dago egin behar dutena datu-lagatze edo datu-komunikazio bat dela, hau da, eskatzen da datuak erakusteko interesduna ez den beste pertsona bati. Datu-lagatzei buruzko lege-erregimena DBLOren 11. eta 21. artikuluetan dago jasota.

Baztertuta geratu denez instalazioa erabili ohi duten profesionaler eskatutako datu-lagapena ez dagoela azkenen aipatutako artikulua babespean, datu-lagatzea ez



delako administrazioen artean egiten, egiaztatu behar da ea betetzen diren lehenen aipatutako artikuluan eskatzen diren baldintzak.

Hona hemen manu horrek dioena, gure interesekoa baita:

“1. Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren pertsona bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da toki erakundearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde zurrerako adostasunarekin.”

2. Aurreko paragrafoan aipatutako adostasuna ez da beharrezkoa izango honelako kasuetan:

a) Lege batek baimentzen badu lagapena.”

Beraz, kontsulta-idazkian aipatzen den kontrola behar bezala gauzatu ahal izateko modu bat da datuen titularren adostasuna eskuratzea, kontuan izanda datuen titularra ez dela hondakinak instalazioetan uzten dituen, hondakinak sortzen dituztena baizik.

Gauzak horrela, 11.2 artikuluko a) idatz-zatian jasotakoa ezartzeko, jakin egin behar da zein den datu-lagapena egiteko gaikuntza ematen duen legea.

Hori argitzeko, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legea ekarri behar dugu hona; baina, kontuan hartuta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa ez dela gai horretan aditua (bai, ordea, kontsulta-egilea), eta, beraz, Bulegoak esaten duen guztia zuzentzea eta kontu handiarekin esango duela, eta arlo honetako kudeaketa eta exekuzio operazioak egiteko eskumena zuzenean esleituta duenaren gorenko iritzia menpe jarriko duela.

Aurreko ohar hori egin eta gero, eta kontsulta-idazkian emandako azalpenarekin bat, Bulegoak uste du lege horretan ez dagoela kontsulta-egileak abian jarri nahi duen jarduera baimentzen duen aurreikuspenik, ez behintzat jarduera datuen titularren adostasunik gabe abian jartzeko.

Kontua da kontsultak aipatzen dituen hondakinak goiko lege horren ezarpen-esparrukoak direla, eta hondakin horiek bat datozela Legearen Eranskineko Q13 Kategoriarekin zer ikusia duen 3. artikuluko jasota duen definizioarekin (hona definizioa: *“Berez gehiagotan erabili ezin diren edo edukitzailearentzat erabilgarriak ez diren produktuak (esaterako, ... etxeetan, ... baztertzen diren gaiak”*). Eta badirudi erraz onar daitekeela instalazioen ohiko erabiltzaileak diren profesionalak “edukitzaileak” direla, Hondakinen Legearen 3. artikuluko f) idatz-zatian esaten denaren arabera. Baina, aurreko guztia argi badago ere, ez dago hain garbi erabiltzaileek Legearen 20.2 artikuluan xedatutako informatzeko obligazioa dutenik (20.2 artikulua arabera *“Herri-hondakinak sortzen dituzten ekoizleek edo edukitzaileek hondakinen jatorriari, kantitateari eta ezaugarriei buruzko informazioa eman beharko diete toki erakundeei, hondakinak bereziak badira eta garraiatzeko, biltzeko, ebaluatzeko edo suntsitzeko orduan eragozpenak ekar baditzakete”*), ez dagoelako ezer hondakinak bereziak direla frogatzen duenik, eta kontsulta-idazkian ere ez da honetaz ezer aipatzen. Bereziak izateko, goiko artikuluan esaten dena bete behar baita.



Aiarako Kuadrillaren Garbigunea - Hondakinen Biltegi Alternatiboaren Funtzionamendu Erregelamendua irakurri eta gero, goiko ondorio bera ateratzen dugu.

Erregelamenduarekin bat, eta gorago adierazi dugun zuhurtziaz jokatzuz, Bulegoak uste du instalazioak erabili ohi dituzten erabiltzaileak "hornitzaileak" direla, baina kontsultak esaten duen zentzuarekin: "hondakin birziklagarriak Garbigunean **uzten** dituzten pertsona naturalak edo juridikoak" edo "erabiltzaileak" direla, 8. artikulua arabera ("denda txikiak"), alde batera utzita zertarako erabiltzen duten garbigunea, eta garbi dago "bezeroei laguntzeko" erabiltzen dutela. Eta hori hala dela ulertzen da Erregelamenduak ez duelako jasota (berretsi egin nahi dugu Bulegoak egindako interpretazioa dela hau, eta erregelamendua zuzenean ezarri behar duenaren goreneko iritzia menpe jartzen garela) hornitzaile mota bat baino gehiago dagoenik, hondakinen jatorriaren arabera.

Hori hala bada, Bulegoak esan behar du ez duela lege babesik ikusten profesional horiek hondakinen jabeen datu pertsonalak ematera behartzeko, hondakinak uzten lagundu baino ez dietelako egin.

Egia da 7.2 artikulua dioela instalazioen arduradunen betebeharrerako bat dela "*bertan sartzen diren erabiltzaileen onarpen eta sarrera erregistroa eta bertan uzten dituzten hondakinen erregistroa egitea egunero*", baina lehen esan bezala, instalazioetan hondakinak utzi ohi dituzten profesionalak erabiltzailezat jo behar dira, eta, beraz, zaindariak norbaiten datuak hartuz gero, profesionalen datuak hartu beharko ditu eta ez profesionalen laguntza jaso duten pertsonenak, beti ere pentsatuz asmoa azken horienak jasotzea dela.

Horretaz gain, 9. artikulua dio erabiltzaileen erantzukizunetako bat dela "*kontrol gunean esatea zer utziko duten eta utziko dutenak zein jatorri duen*". Baina, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak uste du hondakinen jatorriari buruzko datuak ez direla profesionalen "*laguntza*" jasotzen duten pertsonen datu pertsonalak izan behar, hondakinen jatorriari buruzko datuak baizik: zein jarduerak sortu dituen zergatik sortu diren eta abar.

ONDORIOA

Hondakinen jatorria kontrolatzeko prozedura bat ezartzea ez dago pribatutasunaren aurka, baldin eta jasotzen diren datuak enpresari bakoitzarenak badira, irizpen honen lehenengo gogoeta juridikoan ezarritakoaren arabera.

Jasotzen diren datuak pertsona fisikoenak badira, ordea, eta pertsona fisikoa ez bada erabiltzailea, orduan bere adostasuna beharko da, edo, bestela, horri buruzko aurreikuspen bat jaso beharko da Xxxxx-(e)ko Garbigune-Hondakinen Biltegi Alternatiboaren Funtzionamendu Erregelamenduan.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko uztailaren 2an